

DESBERDINTASUNAREKIKO AHALMEN KRITIKOA ETA ALDAKETARAKO AHALMENA

IRAKASLEENDAKO JARRAIBIDEAK



Nafarroako
Gobernua

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetza **lantzen**

"HEZKIDETZA LANTZEN". LANERAKO PROPOSAMENA

"Hezkidetzan" programaren hiruhileko lan proposamen bakoitzak ondoko osagaiak ditu:

- ▶ **Irakasleendako orientazioak**, orokorrak (etapa guztietarako) eta espezifikoak etapa bakoitzerako (baina ez etapa horretarako esklusiboak, gainerako etapetan egokitu eta erabili daitezkelako).
- ▶ **Jarduerak eta behaketa fitxak eta jarduera** zuzenak ikaslee-kin. Eredu edo adibide tipoak dira, etapa zehatz baterako pentsatuak eta proposatuak. Eredu horien ideiak, kontzeptuak eta edukiak beste etapetan egokitu eta erabiltzen ahal dira.

Irakasleendako orientazioak bi motatakoak dira:

- ▶ Hiruhilekoan landu nahi den ikasketari buruzko **orientazioak edo jarraibide orokorrak**, alde batera utzita zein ziklotan lan eginen den. Jarraibide horiek **gorri koloreko orri-burua** duten hau bezalako orrialdeetan jasotzen dira.
- ▶ **Orientazio edo jarraibide espezifikoak** ikasketa horren eduki zehatz baten inguruan eta etapa zehatz bati bereziki egokituak eta aplikatuak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, hurrenez hurren.

AURKEZTUTAKO JARDUERAK ETA FITXAK, ETAPA BAKOITZEKO

Proposatutako jarduerak eta fitxak zuzenean erabil daitezkeen jardueren eredu edo adibide tipoak dira, edo horietatik abiatuta, bestelako jarduerak eta fitxak sortzeko erabil daitezke. Irakasle eta eskola bakoitzak **proposatutako jarduerak eta fitxak garatzen eta moldatzen** ahal ditu (eta moldatu eta garatu behar ditu) bere ikasleen eta bere eskola errealitatearen arabera (eskaintzen ahal den denbora, inplikaturako irakasleak, bestelako materialak eta alde aurretik egindako esperientziak...).

Bai **irakasleendako berariazko orientazioak**, bai etapa bakoitzerako proposatutako **jarduera eta fitxa tipoak** kolore desberdineko orri-buruetan jasotzen dira dagokion etaparen arabera. Jarduera eta etapa bakoitza orri-buru horretan ondoko moduan zenbakitu da:

- ▶ **Laranja Haur Hezkuntzarako: HH-1, HH-2, HH-3, HH-4...**
- ▶ **Berdea Lehen Hezkuntzarako: LH-1, LH-2, LH-3, LH-4...**
- ▶ **Marroia Bigarren Hezkuntzarako: BH-1, BH-2, BH-3, BH-4...**

HH-1

HH-2

LH-1

LH-2

BH-1

BH-2

jarraibideak

Bai irakasleendako **berariazko jarraibideak**, bai etapa bakoitzaren **behaketa eta jarduera fitxak** (Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza) ez dira esklusiboki erabiliko aurkezten diren etapa bakoitzean. Alderantziz, gutxieneko egokitzapen tematiko edo terminologiko bat eginez, horiek guztiak **baliagarriak dira gainerako etapetan**.

Adibidez, "Pautas para sesiones con el alumnado" testua prestatu da bereziki Bigarren Hezkuntzako ikasleengan pentsatuz eta berarekin berdintasunerako hezkuntzaren saio espezifikoak egiteko jarraibide egokienetan pentsatuz. Hori dela eta, etapa horretako orrialdeetan jasotzen da. Baina **gutxieneko moldaketa batekin berdin erabiltzen ahal da gainerako etapetan**. Gauza bera gertatzen da, adibidez, Haur Hezkuntzako proposamenen emandako jarraibide espezifikoekin ("Bagaie familiar" eta "Intervención escolar") edo Lehen Hezkuntzan ("Usos de los espacios escolares").

moldagarritasuna

Gauza bera gertatzen da behaketa eta jarduera fitxeekin. Haur Hezkuntzakoak (irakasleen elkarrekin auto-behaketa, norik zer egiten duen eta norik zer egiten ahal duen...) eta Lehen Hezkuntzakoak (espazioen behaketa, jolas tokia, etab.) erraz moldatu eta erabiltzen ahal dira Bigarren Hezkuntzarako. Eta alderantziz, Bigarren Hezkuntzakoak erraz moldatu eta erabiltzen ahal dira aurreko etapetan.

DESBERDINTASUNAREKIKO AHALMEN KRITIKOA ETA ALDAKETARAKO AHALMENA

IRAKASLEENDAKO JARRAIBIDEAK

HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZKUNTZA

"Hezkuntza bat non neskek eta mutilek ikasten duten aldi berean desberdinak eta baliokideak direla eta, ikasten duten giza obra gizonezkoena nahiz emakumezkoena delarik, horrela, guztiontzako mundu bat, borrokarik gabea, eraikitzea lortzeko, non lanaren sexu banaketa eta sexuen arteko gerra alde batera utziko diren". (Elena Simón)

Hezkidetza berdintasunerako heztea da. **Hezkidetza nahitako esku-hartze prozesua da:**

- ▶ zalantzan jartzen du "zer irakasten dugun, nola irakasten dugun eta zergatik erakusten dugun",
- ▶ pertsonen garapen osoa sustatzera bideratua, eta
- ▶ sozializazio komun bat sustatzera, hierarkiarik eta sexuen arteko desberdintasunik gabe.

Ondokoak behar ditu: sentsibilizazioa, prestakuntza, baliabide eta material egokiak izatea, eta laguntza handia. Laburbilduz, hezkuntza komunitate osoa inplikaturiko duen ahalegin eta praktika handia behar du eta modu berean jokatu behar dute gainerako gizarte erakundeek onartu beharko dituztenak berdintasunean benetan sinesten bada eta berdintasun hori lortu nahi bada.

ESKOLA MISTOA ETA HEZKIDETZA

Beharrezkoa da azpimarratzea **eskola mistoa ez dela hezkidetzaren baliokide**. Hau da, erakunde berean biltzea neska eta mutilak, gizonak eta emakumeak, ez da berdintasuneko eskola baten berme.

- ▶ Ez da berdin "berdintasunean" heztea eta "berdintasunerako" heztea.

Ñabardura garrantzitsua da, zeren eta "berdintasunerako" heztea berarekin baitakar berdintasuna erronka edo lortu beharreko helburu gisa pentsatzea, eta "berdintasunean" heztea, berriz, adierazten du berdintasuna lortua dagoela (horrela ez denean), modu honetan, nagusi den ideologia patriarkalaren ondorio diren genero estereotipo eta desberdintasunak iraunaraziz:

- ▶ Androzentrismoa.
- ▶ Sexismoa.

Ikasle diren neska eta mutilak (neska ikasleen taldea neskek izateagatik eta mutil ikasleen taldea mutilak izateagatik) egunero iristen dira ikastetxera **baldintza eta familia eta gizarte egoera desberdinetan**, eta ondorioz, beren eskola ikasketarako **aukera desberdinak** dituzte. Hezkidetzak hezkuntzaren aldetik esku-hartzea planteatzen du




**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

androzentrismoa



Androzentrismoa mundua "begiratzeko" eta interpretatzeko modu bat da, eta bertan **gizonezkoa gauza ororen erdigunea eta neurria da**. Errealitatea ikusteko modu partziala da, kultura, lana, gizateria eta baita genero femeninoa ere, menperatzaile diren balio maskulinoen arabera neurtzen eta baloratzen baitira.

Ikuspuntu hau sistematikoki eman da diziplina orotan, eta **emakumeen ikusezintasuna, balio-galera eta mendetasuna** ekarri du bizitzaren esparru guztietan.

sexismoa

Sexismoa eta androzentrismoa hertsiki lotuta daude, aldebakarrekoa eta errealitatearen desitxuratzaila den ikuspuntu honetatik eratortzen baitira eta lotzen baitzaizkie emakumeei eta gizonen soilik **sexuaren araberakoak diren zenbait balio, ahalmen eta rol** (sexua portaerak nahitaez baldintzatzen ez dituen ezaugarri biologiko huts bezala hartzen denean).

Baina, batez ere, **emakumeekiko jokaera baztertzaila** da, emakumeak direna eta egiten dutena mesprextatuz eta gutxietsiz, eta gizonezkoak egiten dutena lehenetsiz eta zilegitzat emanez.

sexismoa eskolan

Sexismoari eskolan **aurre hartzeak** adierazi nahi du berau **antzematen eta identifikatzen ikastea**, eta horrela jakitea "zer, nola eta zergatik" esku hartu behar dugun. Horretarako beharrezkoa da **generoaren ikuspegia** eskolan sartzea. Generoaren ikuspegia errealitatera hurbiltzea da generoaren eta bere botere harremanaren begiradatik.

sexua ete generoa

Sexua giza espeziearen desberdintze sexualaren **gertaera biologikoa** den bezala, **hortik eratortzen den gizarte esanahia izanzen litzateke generoa**, gizarte batetik bestera eta kultura batetik bestera aldatu egiten dena.

Generoaren ikuspegia kontuan hartu behar da **zeharka landu** beharreko alderdi gisa, zeren eta generoen artean ematen diren desberdintasun harremanak bereizkeriaren sortzean eta ugaltzean eragina baitute, isla zehatzak izanik bizitzaren eremu guztietan, eta beraz, eskolan ere bai.

generoaren ikuspegia

Generoaren ikuspegia eskolan ezartzeak berarekin dakar:

a) **Datuak sexuaren arabera banatzea**, sexismoa eta berdintasun eza agerian uzteko, behaketen eta azterketen bidez.

b) **Aldaketak egitea hizkuntzaren erabilpenean**: berdintasunerako lengoaiak erabili komunikazio eta adierazpen moduetan, ahozkoak nahiz idatzizkoak izan.

c) **Eredu adierazgarri orekatuak eduki**, bai kalitatean eta bai kantitatean, historian zehar emakumeek bete duten paper garrantzitsua eta ekarpenak aitortzeko, eta erreferentzia femeninoak sortarazteko, agerian jarriz irakatsi eta ikasi ez den "izkutuko curriculum".

d) **Kontuan eduki ikaslearen adina, ikasgela, erlijioa...** generoen arteko desberdintasunak aldagai horiekin artikulatzen direlako eta modu egokian esku-hartu ahal izateko ulertu beharrezkoa den gizarte egitura bat osatzen dutelako.

(hau da, kontzienteki eta sistematikoki) desberdintasun horiei aurre egiteko eta neska eta mutilen garapen osoa lortzeko, hezkuntza bat erdiesteko ahalbidetuko duena emakumeek eta gizonek egun duten baino etorkizun berdintasunezkoagoa izan dezaten.

NESKEK ETA MUTILEK ZER IKASTEN DUTEN ESKOLAN

Egungo hezkuntza sistema, , bizi garen gizarte androzentriko eta sexistaren beste isla edo adibide bat besterik ez da, logikoa den bezala.

Eredu honen pean irakasteak eta ikasteak berarekin dakar:

- ▶ Gizonezkoen obren ezagutza eta jakintza unibertsalizatzea eta emakumezkoen edo gizateriaren beste erdiaren obren ezagutza eta jakintza ahaztea.
- ▶ Neska eta mutilak **erreferentzia femeninorik gabe** uztea da.

Esan nahi du, orobat, neskek eta mutilek ez dituztela gauza berak ikasten, ez bere sexuari dagokionez, ez beste sexuari dagokionez, nahiz eta curriculum a berria izan, ikasgela beretan eta irakasle berdinekin eman:

- ▶ Mutikoek kontakizunaren **protagonista** izaten ikasten dute.
- ▶ Neskek **bigarren mailako paperak** antzeztzen ikasten dute.

Honek guztiak maila guztietan eragin handia du (emozionala, psikologikoa, norberarengan, taldearengan, espaziala, ahozkoa...) eta ikasgela ezberdinak sortzen ditu.

Berdintasun eza agerian geratzen da, baina ez da ikusten edo ez da ikusi nahi. Bestalde, ez da erraza, mendeetan zehar nagusi izan izan diren balio horien nagusitasuna baliatu baitugu biologia eta genetika justifikatzeko gure portaera sexistetako asko, eta horrek ekarri du balio horiek naturalak balira bezala hartzea, **sexu diferentzia bihurtuz ere gizarte desberdintasun**, baita hezkuntza desberdintasun bihurtuz ere. Gizarte eredu honek gizarte azpisistema guztiengan du eragina, baita hezkuntzakoan eta pertsona guztietan ere, bai emakumeengan eta bai gizonengan ere, emakumezko eta gizonezko irakasleengan barne.

BERDINTASUN EZA HEDATZEN DUEN HEZKUNTZA

Modu honetan eskolak oinordetzan jaso du berdintasun ezarako hezkuntza, aukera berdintasuna izan ezik, (neskak eta mutilak baldintza berdinetan sartzen dira ikastetxeetan), inertziaz ugaltzen, da ondoko eskola alderdietan nabarmenduz:

- ▶ Tratu ezberdina.
- ▶ Berdintasun eza aukeretan.
- ▶ Berdintasun eza jokabideen eskakizun eta ebaluazio baldintzetan.
- ▶ Berdintasun eza adierazpenean, erreal eta sinbolikoa, hizkuntzaren eta ezagutza partzialen eta osatu gabeen bidez gauzatu.
- ▶ Berdintasun eza erreferentzia ereduetan.

"Betiko" hezkuntzatik kontzienteki hezten da berdintasun ezarako eta zilegitzat jotzen dira ideologia "menderatzaile eta menderatua" indartzen duten portaerak, pentsatzeko eta jarduteko moduak, espazioa betetzeko eta hitza erabiltzeko moduak, etab. Ideologia horien atzean daude emakumeek pairatzen dituzten bereizkeria, tratu txarrak eta indarkeria sexista.

GENERO MASKULINO ETA FEMENINOAREN IKASKETA

Jaiotzarekin batera hasten den genero nortasunaren eskuratzeak (edo baita ere beste pertsona batzuek haurra **jaio baino lehen** berarekiko egiten dituzten proiektzioen bidezko itxaropenetan, fetuaren sexua zein izanen den jakiten den unetik), bi bide ditu sexuaren arabera ongi mugatuta. Hau da, "eme" sexuarekin jaiotzea emakumearen baliokidea da, hots, femeninoarena, eta "arra" jaiotzea gizonaren, maskulinoaren baliokidea da, sexuaren eta nortasun generikoaren arteko korrespondentzia halaberrez norabide bakarrekoa ez denean.

Gizonezkoek **nolakoak izan behar duten**, eta emakumezkoek **nolakoak izan behar duten, nola jokatu, pentsatu** eta jardun behar duten gaiaren inguruan ideiak, itxaropenak eta printzipioak ditu gure kulturak. Gizarteak sistematikoki transmititzen ditu, jaiotzatik bertatik, emakumezkoak eta gizonezkoak desberdintzen dituzten baina aldi berean desberdin egiten dituzten gakoak.

Horrela, jaioberriaren sexuaren arabera:

- ▶ **Tratua**, hitz egiteko modua, balorazioak, itxaropenak, ereduak... aski desberdinak dira neska edo mutilendako, eta bai batak eta bai besteak neurri handi batean ikasten dute eskaintzen zaien hori eta ikusten duten hori.
- ▶ Bere portaera eta jarrerak eskema maskulinoarekin bat etortzea espero da, mutila bada, eta femeninoarekin neska bada portaera horiek onartuz edo gaitzetsiz, zein parametroetan mugitu behar diren argi uzteko.

ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK

Modu honetan sortzen da itxuraz gainditu ezina den banaketa bat eta rol eta estereotipo sorta bat, maskulinoak eta femeninoak, **desberdinak baina ez maila berean, osagarriak baina elkarri aurre eginenez**, maskulinitasun eta femeninitasun eredu bakarrari zilegitasuna ematen diotenak, eta eredu horiek diragizartean onartzen diren baka-rrak.

Ikasle diren neska eta mutilak etxetik aski markatuak ekartzen dituzte rol eta estereotipo hauek, **eskolan bertan daude eta bertan ugal-tzen dira**, hezkidatzaren arloko programa edo esperientzia batzuk izan ezik, ondoko hauen bitartez:

- ▶ Curriculum formala, jolasak, elkarrekintza mota, hizkuntza, erreferentzia ereduak...

Horrela, **generoaren gizarteratzeak** eragiten du:

- ▶ neskak, zainketaekin eta honen balioekin zerikusia duen guztiaren desioaren eta gustuaren aurrean azaldu daitezela, batik bat
- ▶ mutilak azaldu daitezela jostatzeko, lehiatzeko eta irabazteko desioaren eta gustuaren aurrean.

Harremanak izaten ikasten dute, baina **ez dute ikasten parez pareko-harremanak izaten**, maskulinoa femeninoaren gainetik jartzen baita, horrek dakarren boterea indartuz eta honen bidez ondoko lagunduz:

- ▶ Batzuek abusatzen ikasten dute (mutilak) eta
- ▶ Beste batzuek (neskek) jasaten eta isiltzen.

datuak bereiztea

Gure ikastetxean hezkidetzaren aldaketari hasiera emateko, **gure ikasleek bertan zer ikasten duten behatu behar dugu**. Hau da, zer ikusi eta zer egiten duten, zein eredu duten eta zer ikasten ari diren batzuk eta besteak.

Horretarako, gure hezkuntza errealitatea behatu eta bertatik datuak jaso behar ditugu, **nesken eta mutikoen datuak bereiziz**. Soilik horrela eza-gutu eta ulertuko dugu gure errealitatea.

nork zer egiten duen

Ikasleek modu orokorrean hitz egiteak, hots, neskez eta mutilak bereizketarik egin gabe mintzatzeak **eskola errealitate** askoren dimentsioak, zergatiak eta balizko konponbideak mozorrotzen eta nahasten ditu, ondokoak adibidez:

- Absentismoa.
- Porrot akademikoa.
- Ikasketak uztea.
- Diziplina eza.
- Bizikidetzaren arazoak.
- Indarkeria eta erasoak.

Hauek eta bestelako eskola adierazpenek ere lotura zuzena dute **ikasleekin, espektatibekin**, eta neskek eta mutilak eskolan ikasten dituzte **erduekin**. Ez soilik eskolan, baina eskolan ere bai.

nork zer erabiltzen duen

Muturreko errealitate hauek guztiak **errealitate zabalago** baten adierazpenak, iceberg muturrak dira soilik: **gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eza** gure gizartean, eta ondorioz, ikastetxeetan horren zati eta azpisistema gisa. Hau da, horietan ikasleendako (neskak eta mutilak) gizarte ereduaren eta itxaropen desberdinen indarra. Eskolari dagokionez, adibidez, ondokoetan dute eragina:

- **Antolaketa eta parte hartzea.**
- **Kurriculuma eta materialak.**
- **Hizkuntza eta irudiak.**
- **Espazioak, denborak eta baliabideak.**
- **Harremanak eta bizikidetzak.**
- **Motibazioa eta ebaluazioa.**

estilo nagusia

Gizarte androzentrismoak eta gizonetzkoek botere eta gizarte prestigiooko lekuetan tradizioz gizonetzkoek izan duten presentziak **gizonetzkoen komunikatzeko estiloa hobereana dela** jotzera eraman dute:

- **Doinu baxua** sinesgarriagoa eta fidagarriagoa dela uste da; aldi berean, emakumeen doinu altua seriotasunik gabekoa dela jotzen da.
- Gizonetzkoen **intonazio laua**, hotza eta emoziorik gabekoa arrazionalizat eta orekatuz jotzen da; aldi berean, neska eta emakumeen intonazio aldakorra, beroa eta emoziozkoa histerikotzat jotzen da.
- Gizonetzkoen **itxura serio**, hotz eta defentsiboa zientifikotzat eta objektibotzat jotzen da; aldi berean neska eta emakumeen irria, hurbiltasuna eta enpatia subjektibotzat eta ez zientifikotzat hartzen dira.

eskola elkarrekintzak

Gizarte errealitate hau ikastetxeetan ikusten da. **Orokorrean, maila guztietako irakasleek** mutilen komunikatzeko estiloa irakasten eta saritzen dute; hori horrela, mutilek nesken aurrean abantaila handia dute:

- **Mutilek jendaurrean gehiago** hitz egiten dute eta denbora gehiago aldi bakoitzean.
- **Askoz gehiagotan moztzen** diete ikasleedeei eta irakasleedeei.
- **Gehiago** erabiltzen dituzte **isekak**, hitz oldarkorrak, irainak, etab.
- **Gehiagotan egiten dute ohia**, keinuak eta gehiago mugitzen dira, hitza eta espazioa bereganatzen dituzte, ikaratu, kiki-ki-ki eta nagusitu egiten dira.
- **Neskek gutxiago parte hartzen dute jendaurrean**, moztu gabe entzuten dute eta ez dute lortzen eztabaidan sartzea. Batzuetan **mututasunean** erortzen dira. Ohia eginez gero **histerismotzat** jotzen da eta gizonen papera hartzen badute **desegokitzat** jotzen da.

irakasleak

Ikerketek erakusten dute irakasleek inkontzienteki ondokoa egiten dutela:

- **Bi aldiz baino gehiago begiratzen** diete mutilei neskei baino, eta **zortzi aldiz gehiago zuzentzen zaie** mutilei neskei baino.
- Mutikoak aukeratzen dituzte zerbaitei erakusteko, ariketetarako... "**boluntario bat**".
- Mutilen gaiak eta eztabaidak hartzen ditu.
- **Mutikoei galdera irekiagoak** eta sartzailagoak egiten dizkie, neskei, aldiz galdera zehatzagoak eta erretonikoagoak.

BERDINTASUNERAKO HEZIKETA ESKOLA MISTOAN

Berdintasuna da agian egun eskola mistoaren erronka beharrezko eta interesgarrienetako bat. Neska eta mutilak (herrialde gehienetan) sartzera eskolan, horrela, hezkuntzarako eskubide unibertsalak eguneratuz eta **Berdintasunaren balioa** diskurtso gisa onartuz.

Baino diskurtsoaren eta praktikaren artean jauzi handia dago. Jauzi hori gainditzeko proiektuak egin behar dira (helburu neurgarriekin, edukiekin eta praktikekin), benetako hezkidetzak esku-hartze batera zuzenduta, generoaren ikuspegi ez sexistarekin, ondoko balioak sustatuz:

- ▶ Banaketa justizia: **emakumeak ondokoetan ikusaraziz**: curriculum formalean, hizkuntzan, denboraren, espazioaren eta tresnen antolaketa eta banaketan eta eredu adierazgarrietan.
- ▶ Enpatia solidarioa: **emakumeek gizonen aldean dituzten desabantaila egoerak onartzea**. Gizonetzkoak mesedetu eta emakumeak baztertzen dituzten botere harremanak onartzea.
- ▶ Errespetu aktiboa: **nesken eta mutilen arteko errespetua**, neskekiko eta mutilekiko errespetua pertsona gisa duten ezaugarriengatik, eta ez bere sexuagatik; pertsonak sexuaren arabera neurritz kanpo baloratu gabe edo gutxietsi gabe.
- ▶ **Autonomia pertsonala**, ondokoak ikastea: "lan bizitza, bizitza zibikoa eta bizi kalitatea, norberaren eta besteen estimua eta zainketa, bizitzaren inguruabarrek horrela eskatzen dutenean". Oinarrizkoa da pertsona gisa erabat osatzeko, mendetasun harremanetatik kanpo, gure eskubide guztiak gauzatu ahal izateko.

MINTZAIRAREN BIDEZ GENEROAREKIKO KIDE-EGITEA

Genero maskulino edo femeninoarekiko identitatea jardunean eta mintzatzean eraikitzen da eta adierazten da, **jardueran eta hizketan**. Non eta, hizketari dagokionez, horrenbeste gertatzen da hori, non edozein giza komunitatean, ikuspuntu linguistikotik, beti argi desberdintzen dira bi komunitate eta komunikatzeko bi estilo, gutxienez, emakumezkoena eta gizonetzkoena.

Neskek ikusten dute **nola hitz egiten duten** beste neska eta emakumeek, genero ereduak kopia eta bereganatzen dituzte eta beste pertsona batzuekin elkarrekintzan aritzen dira (gizonak eta emakumeak), bereganatutako ereduak erabiliz. Eta gauza bera mutilak, beste mutilak eta gizonak nola aritzen diren behatuz. Horrela, beren oinarritzko erregistroetan desberdin diren **komunikatzeko bi estilo sortu eta ugaltzen dira**:

- ▶ Ahots doinua, aldaketa biologikoa baino lehen imitatzen dutena.
- ▶ Esaldien intonazioa, gorantz edo beherantz.
- ▶ Erabilitako terminologia, bai kantitatean, bai kalitatean.
- ▶ Hitza hartzeko eta erantzuteko txandaren abiadura eta erabilerak, parte hartzearen eta etenaldien kantitatea eta kalitatea.
- ▶ Entzute eta hitz egite kooperatiboa / hizketa lehiakorra nabarmentze aldera.